

# noaua

**Felix Sarasolari  
omenaldia igandean**

**Kantu Taldeak 10 urte,  
larunbatean urtemuga  
festa**

**Badator, ekitaldiz  
beteriko 15. Soinurbil  
Musika Astea**



**Juan Tapia:  
“Usurbilen etxean bezala  
sentitu izan naiz beti”**



PSU  
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



**FINKA ADMINISTRATZAILEA**

**AHOLKULARITZA ZERBITZUA**

**INMOBILIARIA**

**ASEGURUAK**

**943 573 693**

*Eusko Gudari 35, ORIO*



**AZKEN  
GELAK!**



943 373 613

**BIDAIAK  
TALDEAN**

**IRTEERA EKAINEAN**

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

[info@noaoa.eus](mailto:info@noaoa.eus)

[noaoa.eus](http://noaoa.eus)

## Albiste iruditan

### Bi astetik gora, lantegi atarian

**I**a langile guztiak kaleratu nahi dituzte, eta finean, Atalluko planta itxi. Horren aurrean, dituzten lanpostuen eta Ingemar irekita segitzearen alde duela 10 urte hasitako borrokan segitzen dute langileek. Duela bi aste baino gehiagotik greba mugagabeen dira berriz. Astartean, egunero biltzen dira lantegi atarian bost orduko bi txandetan, 8:00-18:00 artean, bertan egokitua duten etxetxoan. Lantegia errentagarria dela defendatzen dute, “inor ez dago soberan”. Ingemar taldeko 47 langile kaleratu nahi dituzte, haietatik 31 Usurbilgo lantegikoak. Kontratu amaierako EEE aurkeztu zaie.



Bi astetik gora daramate Ingemarreko langileek greba mugagabeen.

## Laburrean

### Ordu aldaketa, igande goizaldean

Igande goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira. Ordua aldatuko dugun azken aldia izan liteke. Baliteke etorkizunean, Europar Batasuneko herrialde bakoitzak neguko edo udako ordutegia indarrean jartzea erabaki ahal izatea.

### Oporraldi aurreko azken astekariak

Aste honetakoaren ostean, udaberriko oporren aurretik beste bi aldizkari argitaratuko ditugu, apirilaren 5ean eta 12an. Zorion agurrik edo oharrik argitaratzeko asmoa duzuenok jakin dezazuen, gero bi astez ez da NOAUA!rik izango.

### Errigorako produktuen banaketa

“Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura” kanpainako produktuak eskatu dituzuenok adi; olioia eta kamisetak apirilaren 5etik 11ra, eta kontserba- eta arroz-loteak maiatza amaieran jasoko dituzue NOAUA!n. Ordainketak orduan egin.

# noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkartea@noaUA.euS ||| www.noaUA.euS  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatorak:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.euS

**Diseinu berria:** Erroitz S. L

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaUA.euS:**

Imanol Ubeda, Itsaso Orbegozo,

Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,


Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



**Aroa Etxeburua Ugartemendia**

## Udaberria?

**U**daberriko ekinokzioa igaro berri dugu, izan ere, aurreko astezkenean agurtu genuen negua udaberriari hasiera emateko. Jada nabari dira bitxiloreak zelaietan, autoen kristalak polenez estalita daude han eta hemen. Pozgarria zait lurra esnatzen ikustea, bizitza berriak erretzen sumatzea, udaberri usaina.

Niri negua ez zait askorik gustatzen, hotza eta euriak tristura sorrarazten dit. Negu honen hasieran, katiuska batzuk erostea pentsatu nuen, aurten bereziki gogo gutxi bainuen egun euritsueterako eta neguari aurre egiteko "kit"ean katiuskak gehitzea aukera bikaina iruditu zitzaidan. Baina konturatzerako, udako oinetako txuri-txuri batzuk erosten topatu dut nire burua. Egia

esan, negu honetan egun euritsuak bezain beste izan dira eguzki goxotan hartu ditudan kafe luzeak.

Onartu beharra daukat tabernako terrazan eguzkitan gustura egon naizela negu honetan, katiuskarik gabe. Baina nire plazera alde batera utzita, kezkarria da egoera. Aldaketa klimatikoaz ari naiz, bai.

Honen harira, azken aldian ezaguna egin da Greta Thunberg, 16 urteko ikasle eta aktibista suediarra. 2018ko abuztutik ostiralero parlamentuaren parean greba antolatu du aldaketa klimatikoaren aurka eta #FridaysForFuture lemapean mugimendua zabaltzen joan da pixkanaka beste herrialdeetan zehar.

Apirilaren 15ean Euskal Herriko hainbat ikasle ere grebara batu ziren, beste 105 herrialderekin batera. Gazteak

gai honekin arduratzen hasiak dira munduan zehar eta ez zaie motiborik falta.

Ni ez naiz ez aktibista, ezta gai hauetan aditua ere, baina edozein herritarrek ulertzeko modukoa da bizi dugun egoeraren larria. Kapitalismo kontsumista hau gure planeta akabatzen ari da gure muturren parean. Oinarrizko oinarrizkoena suntsitzen ari gara, gure oinek zapaltzen duten lurra, gu elikatzen gaituen lurra, guk arnasten dugun airea, guk edaten dugun ura...

Bizitza fisikoki sostengatzeko beharrezko baliabideak suntsitzen ari gara eta agerikoa da, baliabide hauek gabe ez dela posible bizitzarik Lurrean. Geure ondorengoei utziko diegun gizartean pentsatzeak agian zentzua galduko du hemendik urte batzuetara, guk geuk, etorkizun laburrean, dugun planeta

hau bizirik mantentzeko horrelako zailtasunak ditugunean.

Pesimista xamarra da testu hau, badakit. Eta gustatuko litzaidake honi aurre egiteko alternatiba itzel batekin ixtea azken paragrafoa. Baina ez daukat. Ez zait bururatzen honi amaiera on bat emateko modurik, egia esan. Greta Thunberg parlamentuaren parean esertzen da ostiralero politikariei aldaketa klimatikoaren gaia lehen lerroan jartzea exijitzeko. Eta ez da gutxiagorako, etorkizuneko gizarteko edozein proiektuk zentzua galtzen baitu gure Lurrean gauzatzea posible izango ez bada. Geure teiltuaren aurka botatako harri guztiak ikusita, gizakiaren inteligentzia maila zalantzan jartzeko modukoa da gure jarduna. Geure Etxea pikutara doa.

**Aroa Etxeburua Ugartemendia** | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

## Orbeldi, Oiartzungo Dantzari Txiki Egunean

**H**erriz herri ibili ohi dira Orbeldi Dantza Taldekoak, ez soilik Usturbi- len. Horren erakusle pasa den asteburuan egin zuten irteera. Martxoaren 24an Oiartzungo Dantzari Txiki Egunean parte hartu zuen herriko dantza taldeak. DBH-ko ikasleek hain zuzen. "Ederki pasa genuen" adierazi diote NOAA!ri, on-

doko talde argazkia igortzearekin batera.

### 7. Dantza Eguna

Orbeldi D.T.-ri egun handirako gutxi falta zaio. Bi aste barru, apirilaren 13an ospatuko dute 7. Dantza Eguna. Kalejirak, emanaldiak, dantzarien topaketa eta gaueko emanaldi ikusgarria izango ditugu.



### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

# Aldaketak zirkulazioan, Ugartondoko lanak tarteko

**U**gartondoko urbanizazio berria eraikitze lanak hasi berri dituzte. Ondorioz, Usurbilgo Udalak zirkulazioan aldaketak izango direla ohartarazi du, martxoaren 26tik aurrera.

Ohar bidez Udalak jakitera eman duenez, “obra honek eremu horretako zirkulazioa aldatzea ekarriko du”, aipatu moduan, astearte honetatik (martxoak 26) obrak amaitu artean. Batetik, “Pikaolatik Kaxkorantz doan errepidea itxi egingo dute, eta, ondorioz, Ugarte aurreko errepidea bi norabidekoa bihurtuko dute. Ibilgailuen joan-etorria semaforo bidez erregulatuko da: aldaparen hasieran eta amaieran jarriko dira semaforak”.



Babes ofizialeko 46 etxebizitza eta 46 etxebizitza tasatu eraikiko dituzte.

Bestalde, “haur-eskolako aparkalekuak kendu egingo dira, errepide hori bi norabidekoa bihurtuko delako. Edonola ere, haur-eskolako erabiltzaile-

entzat haur-eskolatik ermitara bitarteko errepide zatia egokituko da, umeak utzi edo jaso bitartean, ibilgailua une batez aparkatu ahal izateko”.

## Ugartondo saihesteko deia

Obrak amaitu artean iraungo duten aldatetako aurrean, adi Udaletik herritarrei luzaturiko aholkuari. “Zonalde horretan ibilgailuen joan-etorria arintzeko, herritarrei eskatzen zaie Troiako sarrera-irteera, ahal den neurrian, saihesteko, eta herriko sarrera nagusiak erabiltzeko”.

## Txirikorda

Etorkizunean Ugartondoko urbanizazio berrian kokatuko den Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektua definitzeko abian den partehartze prozesuko azken saioa, apirilaren 6rako deitu du du Udalak, 10:30-12:30 artean Potxoenean. Landuko duten gaia, “funtzionamendua” izango da.

## Ika-mika

# Atez ate: hamar urte, hamaika bertute

**H**amar urte igaro dira hondakinak biltzeko atez ateko sistema martxan jarri genuenetik. Hamar urte, Usurbilek hondakinengandik arduraz heldu zionetik.

Zenbaitek atez atekoaren esanahia eta eragina gutxietsi nahi izan badu ere, egindako apustuaren eta orduz geroztik izandako bilakaeraren balantzea bikaina da. Datu objektiboak aztertuz gero, inork ezin du bikaintasuna ukatu. Horregatik jaso dugu halako onarpena eta aitortza ikuspegi neutralez guri begira daudenengandik.

Oraindik orain ezagutu ditugu 2018ak utzitako datuak. Oso onak dira alderdi kuantitatiboari nahiz kualitatiboari erreparatuta: %85eko gaikako bilketa lortu dugu eta %98,77ko egokitasuna du bihondakinak. Kostu ekonomikoei begiratuta ere, gastuak murriztea lortu da.

Interesa duenak Usurbilgo Udaren webgunean ditu ikusgai datu guztiak zehaztasunez.

Bada zer hobetua, hala ere. Oro har, hondakin gehixeago sortu dugu, eta horrek esan nahi du prebentzioan eta hondakin murrizketan arreta jarri behar dugula. Usurbil 0.0 programarekin zorrotz jarraitu beharrean gaude, egiten duguna baloraturuz, baina autokonplazentziarik gabe.

Bien bitartean, errauste-planta eraikitze obrak aurrera doaz. Botere ekonomiko eta politikoa duten enpresa handiek, eta haien morroi diren agintariek, esaten digute errauste-planta ezinbesteko kaltea dela, etsipenez onartu beharrekoa. Behin eta berriz esaten digute ez dagoela beste alternatibarik. Gezurra!, mila bider errepikatuta ere, egia izango ez dena. Bai, bada al-

ternatiba. Gu gara alternatiba, herritar xeheak, egunero-egunero hondakinak nahastu gabe dagozkien ontzietan uzten ditugunak. Alternatiba Usurbil da. Izan ere, gure eta gu bezalako beste hainbat herriren emaitzak Gipuzkoa osora zabalduz gero, kitto, bukatuta legoke eztabaida. Batzuei, ordea, ez zaie komeni.

Ke kutsakorra aireratzeko erreparorik ez duten horiek, osasuna eta ingurumena diru-interesen menpe jartzen dituzten horiek, beren propagandarekin jarraitzen dute. Kapaz dira baita aldaketa klimatikoari buruzko kongresua antolatzeko ere! Ke beltza eta mihi zuria. Propagandarako sekulako baliabideak dituztela badakigu. Horretan zenbateko ahalegina egiten duten begien bistakoa da, eta orain, gainera, Gurasos-ek jendarteratu duen beren

ezkutuko dokumentu batean, ezin argiago erakutsi dute propaganda faltsu eta gezurtia erabiltzen dutela gu guztioi ziria sartzeko.

Nahiz-eta ez dugun haizea alde edukiko, nahiz gure lana zapuzten saiatzen ari diren, herri-ekimenak, herritarron eta herri-erakundeen arteko konpromisoak eta elkarlanak emango diote buelta egoera zail honi. Aldaketa sakonak ez dira bat-batekoak izaten, baina ekimenaren ekinez egiten da aurrera.

Gu guztion lorpena da hamar urtean bestelako eredu bat, eramangarriagoa eta egokiagoa, posible dela frogatzea; lorpen kolektiboa da nonahiko teknikariak eta kolore guztietako politikariak guregan etortzea, gure eredu ezagutzera. Horregatik, merezi dugulako, zorianak Usurbil!

**EBBildu Usurbil**

# 10 urte, kantu zaletasuna landu eta plazaratzen

**G**arai batean lanean, kalean, etxean abesten zutenak, pixkanaka musikari eta dantzarien ikus-entzule izatera igaro ziren eta horrek, “garai batean kanturako genuen zaletasuna murriztea ekarri zuen pixkanaka, norberak kantatzeko ez duela balio sinesteraino”. Egoera hau irauli eta zegoen hutsunea bete nahian, kantu zaletasunaz blaitutako Ipar Euskal Herrira eginiko hainbat bisitetatik sortu zitzaion lagun talde bati, Usurbilen lotune bakarrak euskara eta abesteko zaletasuna izango zituen kantu zaletuen bilgune irekia sortzea.

Euskal Herrian beste hainbat herrietan gertatu izan denaren ispilua izan zen herri hau. 2009. urtean sartu berri-tan, Udarregi Ikastolako musika gelan hasi ziren lantzen kanturako zuten zaletasuna. Lerrootan protagonista nagusia dugun 10 urteko ibilbidea osatu duen Kantu Taldea jaio zen. Ordutik, euskara eta euskal kantutegia ardatz, kan-



10 urte bete ditu Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak, herria kantuz girotzen, euskara eta euskal kultura sustatzen.

## KANTU TALDEA

**“2009. urtean sartu berri-tan, Udarregi Ikastolako musika gelan hasi ziren lantzen, kanturako zuten zaletasuna”**

tu zaletasuna lau haizeetara gogotik hedatzen aritu dira. “Hori berreskuratu nahi izan dugu, kantua baita gure adie-

razpen primitiboena”.

10 urte pasata, osasuntsu da taldea. Asteleheneroko ikastaroan, “35-40 bat lagun biltzen gara. Jendea gustura dator abestera, kantuan gozatu eta ondo pasatzera”.

Beste musikariei entzuteaz gain, ikus-entzule pasiboak izateari utzi eta kantu zale eta eragile aktiboan bilakatu da taldea, eta taldeko kideak.

Kantuak dituen dohainak

sustatzen dihardute. Haurtzarotik heziketan abesteko ohitura txertatzeak “haurrari izugarrizko garapena dakarkio”, adierazi digu Kantu Taldeko kide Mikel Usabiagak.

Guztiantzako jarduera osasuntsua dela azpimarratu digu Jaione Eskuderok, ikertua eta frogatua dagoela. “Kantuak garuna irekitzen du, edozertarako prestatzen gaitu”, dio Eskuderok.

## “Guztiok dugu kantatzeko eskubidea”

**U**surbilgo Euskal Kantu Taldeko ikastaroetako eta kantu-jiretako lehen gidaria Susi Elosegi izan zen. Duela bi urte, Udarregi Ikastolako musika irakaslea ere baden Jaione Eskuderok hartu zuen lekukoa. Ikasteko gogotsu, eroso eta gustura ari zen taldea aurkitu zuela adierazi dio NOAUA!ri. “Jende ezberdinez osatutako talde ireki bat. Horixe ikusi dut usurbildarron artean”, dio Eskuderok.

Urte luzez borrokatu da, gaizki abesten duen inor ez

dagoela aldarrikatzen. Aldarri hau noski, Kantu Taldera ere eraman du. “Duela gutxi taldean hasi diren kide berri batzuk sekula ez dutela kantatu esaten zidaten, ez direlako abesteko gai sentitu. Txikitan edo gazteetan gaizki abesten zutela adieraziz kantutik apartatu zituztelako”.

Jaioneren lan ildo nagusia da honako hau transmitzea. “Denok balio dugu abesteko, barrutik ateratzen zaigun hori adierazteko gai gara”. Kantu Taldearen dinamikan txertatua dute ikuspegi hau. Kantarien

ahotsak ez dira abestietara egokitzen. “Ahotsak bilatu egiten ditugu. Kanta kantariaren ahotsa eta doinura egokitzen dugu, dena naturalki”, nabarmendu digu Eskuderok.

Horregatik, Kantu Taldea herri osora zabalduta dagoela dio. Abestea ere guztion eskubidea dela aldarrikatzen du. “Zer behar da taldean kantuan jarduteko? Gogoia besterik ez. Guztiok dugu kantatzeko eskubidea eta kantarekin bizi eta adierazteko aukera”, dio Udarregi Ikastolako musika irakasleak.

Gogoan izan, Usurbilgo Euskal Kantu Taldea astelehenero biltzen da 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan. Saio hauetan, gero plaza-ira irtetan direnean kantatuko dituzten abestiak prestatzen aritzen dira.

### Hitzordu bikoitza asteburuan

Asteburu honetan hitzordu bikoitza izango dute; larunbatean 10. urtemuga festa, eta Felix Sarasolari igandean 12:00etan frontoian egingo zaion herri omenaldian ere parte hartuko dute.

# Taldea, herri eragile ahaldundua

10 urteotan herri eragile anitzekin aritu dira elkar-lanean. NOAUA! K.E.-rekin eta Udalarekin esaterako, kantu-liburuxkaren lanketan. Aldaketa nabarmena ekarri zuen taldera. "Hasieran kantuen orrien fotokopiak atera eta banatzen aritzen ginen. Kantuak eta orriak pilatzen zihoazen. Berehala ikusi zen kantu-liburuxka baten beharra", oroitu digute Kantu Taldetik.

Lehen urteetan kaleratu zen lehen edizioa zaharkitua geratu eta bigarrena ere argitaratu zen. Eta hirugarren bat ere beharko da agian etorkizunean, "badira hainbat kanta gustuko izan eta jarri litezkeenak".

## Bidelagunez josia

Bota Punttuba, Usurbilen Nahi Ditugu, Gure Pakea Elkartea, Zumarte... izan dituzte bidelagun 10 urteotan. "Elkarlan hori garrantzitsua da, elkarren arteko hormak hautsi eta halako elkarbizitza bat izateko. Usurbilek hainbat eragile ditu zorionez eta Kantu Taldea horietako bat da. Pozik gaude horregatik", adierazi diote Kantu Taldetik NOAUA!ri. Hainbat dinamika sortu dira elkarlan horietatik; besteak beste, kantua, bazkari edo afariekin edota bertsoekin uztartu izan dituzteneko saioak, sortzaile ezberdinen omeneko saio monografikoak beste herri eragileen hitzorduetan ere parte hartu izan dute. Talde barrura begira, "kantu-jira eta kantu-afari mordoak egin dugu". Topaketak beste kantu talde-



Kantuzaletasun aktiboa sustatuz, galdutako plaza berreskuratzen du Kantu Taldeak, azken hamarkada honetan.

## KANTU TALDEA

**"Elkarlana garrantzitsua da, elkarren arteko hormak hautsi eta elkarbizitzarako"**

kin. Herritik kanpora ere jo dute abestera, ez baita ahaztu behar Usurbilgoa Euskal Herriko Kantuzaleen Elkarteko kide eta sustatzailea dela, Euskal Herrian diren gainerako antzeko kantarien bilguneekin batera. Bada gogoan duten une berezi bat. Institutuko ikasleekin Mahaspildegiko elkartean belaunaldi arteko kantu-afaria ospatu zutenekoa.

## Ahalduntzea eta kohesioa

Jorraturiko bidean aipatzeko hiru lorpen baditu Kantu taldeak. Batetik, transmisioan egin duten ahalegina. 300 kantez osaturiko liburuxka hartu eta plazara abestera irtenda, "jendearen belarrietara nahi gabe ere iritsi egiten da, transmisioan

ari gara". Bigarrenik, herri kohesioan sakontzeko egin duten ekarpena. "Gizartean ditugun hormak hausten ditu, denok maite baitugu abestea".

Bestetik, norbanako gisa eta talde mailan eman den ahalduntzea. Urrun zuten plaza hartu dute. "Hasieran ez ginen hain ausart abesten, baina horma hori pixka bat hautsi da".

Aurrera begira ere horretan jardungo dute ziur. Larunbateko festa igarota, urtemuga hau ospatzeko ez dute baztertzeko aurten hitzaldi edota jai giroko ekitaldiren bat antolatzea. Gainerakoan, argi dutena da orain arteko bidean sakontzen segi nahi dutela. "Taldek asko konturatu gara zenbat dugun ikasteko. Konturatzen gara kantatzeak baduela ikasi beharreko ibilbide polita", adierazi digu Mikel Usabiagak. Jaione Eskudero askatasunez kantatzera animatzen gaitu. "Libre kantatu, libre sentitu abesten, batere beldur eta lotsarik gabe". Zorionak!

## Urtemuga festa, Nafarroako kantuzaleekin

Bosgarren urtemugan arabarrarekin ospatu zuten topaketa berezia Kantu Taldekoek. Hamar urteak aldiz, Tafalla eta Iruñeko kantu zaletuekin. Ehunetik gora kantuzale espero dira larunbat eguerdian Usurbilen. Ongi etorria eman eta hamaietako ederra dastatu ostean, ekitaldia iragarri dute 12:00etan frontoi atzean. Eta segidan, Mikel Laboa eta Joxan Artze oroitzuz, kantuan abiatuko dira kalez kale. Lau bat geldialdi egin ostean, amaieran Dema plazan bilduko dira, "oso gureak ditugun kantuak abesteko", adierazi diote NOAUA!ri Kantu Taldetik. "Txamunto", "Usurbilgo Eliza"... "gure kantak guk abestu eta non sortu diren aurkeztu behar dizkiegu datozenei. Azkenean, herria aurkeztu", Mikel Usabiagak adierazi digunez.

## Martxoak 30, larunbata

■ 11:00 Ongietorria hamaietakoarekin Askatasuna plazan.

■ 12:00-14:00 Kantujira Mikel Laboa plazatik abiatuta. Amaieran, Dema plazan Usurbili lotutako abestien kantaldia. Deialdi irekia kantu zaletu guztientzat.

■ 14:00-18:00 Bazkaria Aginagako Urdaira sagardotegian.

Izen ematea: itxita.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ORDUTEGI BERRIA:  
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA  
9:00-13:30  
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA  
17:00-19:30  
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

ETXETRESNEN  
KONPONKETAK  
eta SALMENTA  
MARKA GUZTIAK  
azkar, prezio onean  
20 URTEKO ESPERIENTZIA  
645417665  
XABIER Usurbil

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

Patxi jatekxoa  
- bazkariak EGUNERO  
- afariak. asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

# M8ko grebaren balantzea: arrakasta bai, zer hobetua ere bai

**M**artxoaren 8ko greba feministak herritar asko bildu zituen herriko kaleetan zein frontoiko ekitaldietan. Ia bi aste igaro zirenean, balorazioak egiteko ordua izan zen feministentzat, eta martxoaren 21ean Potxoenean eginiko bilkuran zera erabaki zuten: prozesuari jarraipena ematea. Ahal den neurrian biltzeko konpromisoa hartu dute zenbait emakumeek eta Martxoaren 8ko aldarriak, egun bateko aldarri izan baino, egunerokotasunean aurrera eramatea. Hilero edo bi hiletik behin, halako maiztasun batekin, elkartu eta martxoaren 8an hasitako bideari jarraipena ematea dute helburu.

Martxoaren 8ko bizipenetatik ekin zioten feministek balorazioari, bakoitzak bere sentipenak partekatu zituen gainontzekoekin eta egunean zehar bizitakoaren inguruan egindako hausnarketak azaldu zituzten. Egun hartako argazki eta bideoak ikusi zituzten gogora ekartzeko prozesu guztia eta ondoren, banan-banan zenbait aspekturen gainean hausnarketa egin zuten: egitaraua, zaintza, pentsiodunak, ikasleak... eta gai bakoitzaren



Martxoaren 8ko greba feministaren balantzea egiteko, martxoaren 21ean Potxoenean bildu zen emakume taldea.

## MARTXOAREN 8KO GREBA FEMINISTAREN BALANTZEA:

**“Balorazioa positiboa bada ere, prozesua horretan geratzea kezka iturri da askorentzat”**

gainean zer hobetu daitekeen idatzi zuten. Adostasun nabarmena adierazi zuten pare bat kontutan. Alde batetik, uste dute pentsiodun batzuk ekitaldietan partehartu batzuten ere, ez zutela haiengana behar

bezala iristen asmatu. Bestetik, gizonak kudeatutako zaintza gunera haur gutxi hurbildu zirela deritze.

### Prozesuari segida

Etorkizuna ere hizpide izan zuten feministek. Balorazioa positiboa bada ere, prozesua horretan geratzea kezka iturri da askorentzat. Hori horrela, Martxoaren 8ak jarraipena izan dezan, bilerak egiten jarraitzea adostu dute emakumeek eta herrian mugimenduari indarra ematea izango da hurrengo erronka nagusia.

## Bulkada Eguna larunbatean

Apirilaren 19tik 22ra Lemoan ospatuko den Gazte Topagunera begira Bulkada Eguna antolatu du Usurbilgo Ernaik larunbaterako, martxoaren 30erako. Lehenbizi Intxortara irteera eta iluntzerako aipatu Gazte Topagunearen inguruko aurkezpena antolatu dute Sutegin.

Gazte Topagunearen harira esan, hiru egunetarako bonoak salgai dituzue Aitzagan

70 eurotan. Ekitaldi eskaintza zabala iragarri dute topagune egunetarako. Besteak beste kontzertuak eta musikarien artean, Usurbilgo talde bat izango da bertan; Rukula.

### Martxoak 30, larunbata: Bulkada Eguna

■ 09:00 Intxortara (Elgeta) irteera, Bordatxo paretik. Memoria historikoaren errekreazioa eta

hamaiketakoa. Izen ematea: aurrez Aitzagan, 10 euro.

■ 19:00 Gazte Topagunearen aurkezpena Sutegin; bizipenak, musika, bideoak...

■ Oharra: Lemoako apirilak 19-22 arteko Gazte Topagunerako bonoak 70 eurotan Aitzagan salgai.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Ernaik.

## Presoen inguruko ekimen astea

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak, hainbat ekimen antolatu ditu azken ostiraleko elkarretaratzearen bueltan, martxoaren 28tik 31ra.

### Martxoak 28, osteguna

■ 19:00 Jokin Urainek presoen senideen lekukotasunekin osaturiko “Amaren etxea” liburuaren aurkezpena Sutegiko erakustaretoan, Fermin Munarriren eskutik.

### Martxoak 29, ostirala

■ 20:00 Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.  
■ 21:00 Herriko presoei euskal prentsa helarazteko harpidetza afaria Aitzagan. Menua: entsalada, oilaskoa piperradarekin, sagar tarta, edariak eta kafea. Txartelak Aitzaga tabernan salgai 20 eurotan (langabeek 14 eurotan).

### Martxoak 30, larunbata

■ 19:00 Solasaldia: “Presoak eta sorkuntza” Sutegiko erakustaretoan. Partaideak: Oier Gonzalez Ateramiñeko kidea eta Xabier Aranburu ‘Xomorro’ preso ohia.

### Martxoak 28-31, ostegunetik igandera

■ Erakusketa: Aitzol Iriondo eta Itziar Moreno euskal presoen artelanak Epea: martxoak 28-31. Orduetgia: 18:30-20:00 eta igandean, 12:00-13:30. Tokia: Sutegiko erakustaretoa. Zehaztasunak: Frantziako espetxeetan sakabanaturik dituzten aipatu bi euskal presoak gaurkotasun handiko gaien inguruan eginiko sortze lanen erakusketa.

Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.



# Herri bilera Zubietan, legealdiaren balantzeaz eta Herri Batzarraren etorkizunaz

**2**015-2019 legealdiak berea egin du. Lau urteotako balantzea egin eta etorkizunari begira jartzeko ordua heldua da. Baita Zubietako Herri Batzarrarentzat ere. Gutun bidez jakinarazi duenez, honi guztiari buruz jarduteko herri bilera deitu du apirilaren 3rako (asteazkena) arratsaldeko 19:00etan Kaxkapen.

Hitzordu honetan, aipatu moduan, azken lau urteotako balantzea partekatu nahi dute zubietarrek. Inbertsioen, garatzen ari diren erronken eta material erosketen gainean jardungo dute.

Une historiko garrantzitsua bizi du Zubietako Herri Batzarrak, gutun berean irakur dezakegunez. Zubietako bizilagunen erakunde nagusia denaren etorkizuna erabakitzeko egon daiteke. Hala dio, datorren aste teko bilerako gai zerrendaren bigarren puntuak, 2019-2023 legealdiari begira. “Legegintzaldi berria: jarraipena edo desagertzea”.

Gai hauek eta sor daitezkeen beste batzuez gain, galdera eta erantzunetarako tartea izango da.

Herri bilera oso garrantzitsua beraz, Herri Batzarretik apirilaren 3rako deitu dutena. Bertaratzeko gonbita luzatzen diete zubietarrei. “Zure parte hartzea behar eta espero behar dugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu, Zubietako etorkizuna zein izango den jakiteko”, adierazi dute Zubietako Herri Batzarretik.

## Lankidetzaren hitzarmena

Zubietako Herri Batzarrak datorren apirilaren 3rako deitua duen bilkuraren bezperatan, Zubietako hizpide izango dute Usurbilgo Udaleko udalbatzaren osoko bilkuran. Izatez, hilabeteko azken asteartean izaten



Zubietako hainbat herritar 2017ko maiatzerako antolatu zuten galdeketaaren aurkezpenean.

## HERRI BATZARRA

**“Zubietako bizilagunen erakunde nagusia denaren etorkizuna erabakitzeko egon daiteke”**

da udalbatzara, baina apirilaren 28ko Espainiako Gorteko hauteskundeetarako mahaiakideen zozketa eta plenoa, biak batera egiteko ostegunera (martxoaren 28ra) atzeratu dute hilabete honetako plenoa.

## Kudeaketa eraginkortzeko

Hauteskunde egunean mahaietan egotea egokituko zaien herritarren zozketa bidezko hautaketa egitearekin batera, gai gehiago ere hartuko dituzte ahotan: Elkar eta Gureak Michelin ondoko Zapategi lur eremura ekartzeko gune honen hirigintza ezaugarrien aldaketa puntualaren hasierako onespina, Beterri-Buruntza eskualdeko tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako mankomunitate baten sorreran Usurbilgo Udalen parte hartzea...

Eta Zubietako hitzarmena. Aurreko astekarian berri eman genizuen moduan, Zubietako hondakinak biltzeaz Usurbilgo Udala arduratuko da laster, Zubietako Herri Batzarrak eta Usurbil zein Donostiko Udalek landu duten lankidetzaren hitzarmenari esker. Hala berri eman du martxoko Udalberri aldizkariak.

Lankidetzaren hitzarmen hau ordea, zabalagoa da, “Zubietako eremuan exekutatuak obra eta zerbitzuen” ingurukoa hain zuzen. Zubietako eremu honetan eraginkorrago kudeatu ahal izatea du helburu hitzarmen berriak. Lankidetzaren hitzarmen hau ostegun honetako plenoan eztabaidatu eta bozkatuko dute udal taldeek.

## EAJ, Donostiako ereduaren hedatzearen alde

Osoko bilkuraren bezperatan Usurbilgo EAJ-k NOAUA!ra igorri duen oharrean Zubietako lankidetzaren hitzarmenari buruz mintzatu da. Egun Zubietako Donostiako lurretan indarrean den ereduaren Zubietako eta Usurbil osora zabaltzea defendat-

zen dute. Usurbilgo EAJ-ko bozeramaile Josune Urkolaren esanetan, “zaborren bilketan Zubietako donostiarrek duten aukera Usurbil osora hedatzearen aldekoak gara”. Alegia usurbildarrek ere atez atekoaren eta edukiontzien sistemaren artean hautatu ahal izatea eskatzen dute, atez atekoa borondatezkoa izatea, egun Zubietako donostiarrek egin ahal duten moduan.

Eredu hau Usurbil osora zabaltzearen aldekoak direla dio Josune Urkola EAJ-ren bozeramaile eta alkategaiak. “Azken batean, salbuespenak salbuespen, Zubietak erabateko, Donostiakoak zein Usurbilgoak, atez atekoari bizkarra emana diote eta edukiontzia erabiltzen dituzte”. Bere ustez, “hitzarmenak asko du hobetzeko”.

Atez atekoa berraztertu behar da, “gabeziak aitortu eta modu eraginkor eta merkeagoak proposatu, inguruko herri gehienek egin duten harira”. 250.000 euroko defizita eragiten duela eta herriko azpiegituren inbertsioetarako geroz eta diru gutxiago dagoela dio EAJ-k.

# 2019-2023 legealdirako lan taldea prest du Usurbilgo EHBilduk

**M**aiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako hautagai zerrenda taldea aurkeztu eta berretsi zuen Usurbilgo EHBilduk joan den martxoaren 22an Potxoenean egin zuten herri batzarraren baitan. Albiste honi atxikitako eta koalizioak zabaldu duen argazkian dituzue hautagai zerrenda horretako kideak. “Ilusioa eta irribarrea nagusi. Proiektu eta talde ezin hobe osatu dugu, hauteskunde erronkari ekiteko. Mila esker ekipo!!”, adierazi dute koaliziotik sare sozialen bidez.

Taldeko zerrendaburu eta honenbestez Usurbilgo EHBilduren 2019-23 legealdirako alkategai Agurtzane Solaberrieta ildo beretik mintzatu da. “Freskotasuna, zabalatasuna, gaitasuna, gogoia eta ilusioa dira zerrenda honen



Usurbilgo EHBilduk 2019-23 legealdirako osatu duen lan taldea duzue goiko irudian.

nortasun-ikurrak. Oso pozik nago lantalde honen parte izateagatik. Plazera izango da. Zorionak EHBildu!!”, adierazi du Twitter bidez.

## Jendaurreko aurkezpena

Joan den ostiral arratsaldean Potxoeneko ekitaldian aurkeztu eta berresitako hautagaien zerrenda datorren aste-

ko ostiralean, apirilaren 5ean aurkeztuko du EHBilduk jendaurrean, 19:00etarako Usurbilgo frontoian iragarri duen ekitaldiaren baitan.

## Ate joka ditugun hainbat deialdi, motzean

### Alkartasuna Kooperatibaren batzarra

Usurbilgo baserriarren kooperatibak urteko bilkura nagusia deitu du ostegunerako (martxoak 28) Potxoenean. Lehen deialdia 18:30etarako finkatu du, bigarrena 19:00etan.

### “Antzinako obra maisuen logika bizitzarako geometria”

Gai honen inguruko hitzal-di praktikoa antolatatu du Alkartasunak apirilaren 3an 18:30etan Potxoenean. “Spiral4health” lauburua aurkeztuko da, ur dastaketak, erradiestesia frogak egingo dira...

### Sagarrondotik Sagardora

Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ikastaro praktikoko

hurrengo saioa apirilaren 6an, 9:00-13:00 artean Potxoenean. Oraingoan, “garbitasuna sagardoaren kalitatearen lagun. Sagardoa egurrezko ontzietan. Sagardoaren historia bat, zer ikasteko?”, Egoitz Zapiainekin eta Jakoba Errekondorekin. Saioan izen emateko bideok dituzue:

943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com  
alkartasuna.eus

### Desfibrilagailuak erabiltzen ikasteko saioak

Bihotz-biriken geldialdien kasuan, Udalak herrian zehar jarri dituen desfibrilagailuak erabiltzen ikasteko saioak eskaintzen ari dira DYA-ko bolondresak egunotan. Hurrengo

saioak ostiralean:

■ Martxoak 29, 16:30-18:30 Zubietako frontoian atzeko paretaren txoko batean.

■ Martxoak 29, 19:00-21:00 Kaxkoan. Sutegi kultur etxeko pasabidean.

### Datozen KzGuneako ikastaroak

Martxoaren 29ra arte 9:00-13:00 artean zabalduko dute KzGunea. Apirilaren 1etik 30era, astelehenetik ostiralera 16:00-20:00 artean. Arratsaldez honenbestez. Baina adi, apirilaren 13tik 22ra itxita egongo da. Hemen datozen ikastaroen berri:

■ Apirilak 1-12, 16:00-18:00 Ofimatika tresnak-LibreOffice.

■ Apirila 3-4, 18:00-20:00 “Erosketa seguruak Interne-



Desfibrilagailuen ikastaroa Aginagan. Irudia: DYA Gipuzkoa.


ten”.

■ Apirilak 5, 18:00-20:00 “Ordainketak Interneten segurtasunez”.

■ Apirilak 15-30, 16:00-18:00 “Smartphoneak eta tabletak. Android gailua erabiltzen ikasi”.

■ Informazio gehiago: 943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net  
Kale Nagusia, 37



Loratetik altzariak!

**URTINEA**

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



*%100 bertako sagarra*



*Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!*

Santuenea,  
Telf: 943 36 50 31

**SAGARDOTEGIA**



**BAZKIDEEEN TXOKOA**

**NOAUA**

apirilaren 5ean Zozketatuko dugu:

**AGINAGA SAGARDOTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO afari edo bazkaria

**NOAUAREKIN TXOTXI!**

**noaua! euskararen aterpe**

Bazkide egiten bazara. Opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

# Felix Sarasola agurtu eta oroitzeko aukera, igandeko herri omenaldian

**B**erari buruz galdetzen hasita, behin eta berriz aipatu dizkiguten ezaugarriak ditugu, eskuzabaltasuna, besteei emana, eta gizon askea. Halakoxea zela urte amaieran zendu eta bai Usurbilen, eta herritik kanpo Euskal Herriko hainbat txokotan eta bereziki Kuban bete ezinezko hutsunea utzi zuen Felix Sarasola, “Felito” lagun askorentzat.

Haietako hainbat elkartuko ditu bere inguru hurbilak igandean honetarako (martxoak 31) 12:00etan frontoian prestatu dion omenaldi hunkigarrian.

Hitzorduaren bezperan lagun eta senideekin bildu nahi izan du NOAA!-k omendua hobe-kiago ezagutu nahian.



Bidaiari nekazezina, eta joaten zen lekura joaten zela besteak laguntzeko prest beti. Igandean omenduko dute Felix Sarasolaren eskuzabaltasuna. Bizitza aske bizi zalea zela adierazi digute bere hurbilekoek.

## Gaztetatik bidaiatzen

Duela 72 urte sortu zen “Andrenagusi” baserriko semea. Adierazi digutenez, eskuza-bala, geldirik egoteko jaioa ez zena, besteei emana, lagunkoia.

Bidaiaria gaztetatik. Lintzirinen elikagaiak manipulatzeko agiria eskuratu bezain laster, hasiko zuen munduan barrena murgilduko zuen bidaiari luzean. Lehen geldialdia kanariar uhar-teak. “Hiru maleta gorriekin joan zen”, dio bere iloba Arantxa Sarasolak. Handik itzultakoan, Lintzirineko agiri hura eskuratuta, AEB-tara eramango zion itsasontzian Manhattanera. Bidean eta han denetarikoa lanak egin zituen; oinetakoak edota ontziak garbitzen... Etxera itzultakoan, Kanarietara bezala AEB-tara eramandako “maleta gorriak non dituzu?. Jateko saldu behar izan ditut erantzun zidan. Markatua utzi zidan”, oroitzen du Arantxak.

Euskal Herrira itzulita, sukaldaritzaren munduan ibilbide opa-

**FELIX SARASOLA**  
**“Duela 72 urte sortu zen Andrenagusi baserriko semea. Adierazi digutenez, eskuza-bala, geldirik egoteko jaioa ez zena, besteei emana, lagunkoia zen”**

roa osatu zuen Felixek. “Tolosan Beti Alai jatetxean urte batzuk pasa zituen. Gero Lasarteko Txartelera etorri zen”, oroitzen du Felixen anai Joxe Ramonek. Txartelen lehenik eta Txixardin Beltza jatetxean lanean zebilela, 17 bat urte eman zituen iloba Arantxak osabarekin lanean. Garai hartako bizipen gogoangarri mordera du.

Sukaldatzeko gaitasunaz gain, oso antolatzaile ona zen eta sukaldaritzako irakasle trebea, “sekretu profesionalik ez zuen gordetzen”.

Halere argi zuen lanak bere bizitzan zer nolako tartea izatea

nahi zuen. “Lana bai baina harremantzeko, ez bere bizitzako kartzela lana bihurtzeko”, Arantxaren esanetan.

Ez zen geldirik bizitzeko jaioa. “Bere pasioa bidaiatzea zen”, oroitzen du Felixen ilobak. Lasarteko jatetxean zela, ezkontzera zihoan bikote bat menua antolatzen etorri eta “menuaz hitz egin beharrean, bidaiari nora zihoazen eta horri buruzko informazioa ematen aritzen zen”.

## Amaia Zubiriarekin kantuan

Lasarteko Txixardineko sukaldarian, Felixek lagun oso ona zuen Mikel Laboa bera ikusitakoa da Arantxa, kontzertu baten atarian. Sortzaileen munduarekin lotura bazuen Felixek, “ondo abesten zuen”. Zubietan sortutako Amaia Zubiria abeslariarekin kantari berrien lehiara aurkezturikoa da Felix.

Lasarten lanean zela etorkizuna zeharo aldatuko zion herrialdea ezagutzeko aukera izan zuen “Felitok”; Kuba.

## Laguneguz inguratua

Zenbaezinak dira Felixek bai Euskal Herrian zein itsasoan bestalde, Kuba aldean utzi dituen lagunak. Guztion ordezkari zabala bilduko du igandeko omenaldiak. Herritik hasita, 1997an sortu zuen Baba Beltz Txiki Kofradiakoak, Kantu Taldekoak... espero dira. Argiako lagunak baita, urte luzez Lasarteko Txixardin jatetxean ospatu baitziren Argia Sariak, bilera egiteko garajea utzi eta ibilbide oparo askoa jorratu duen Porrotx ere bai... Aurpegi ezagunak espero dira; hil berritan gerturatu moduan, Ruper Ordorika, Duo Jade bikote kubatarra, Joseba Tapia, Olatz Korta... espero dira Usurbilen. “Bera halakoxea zen, denentzat zuen ongi etorria”, oroitzen du iloba Arantxak. Igandean lagun talde zabal eta anitz horren ordezkari bilduko da Usurbilen.

# “Habanako euskaldunen herri enbaxadorea izan da”

Felix Sarasolaren biografia aparteko aipamena merezi du, azken urteotan bizileku zuen Kubak. “Habanako euskaldunen herri enbaxadorea izan da”, dio argi, Felixen lagun Jose Luis Arrastoa kalezartarrak.

Oso argi dio, Felixen Kubako etxea “hango nahiz bertara zihozaren ehunka euskaldunen bilgune eta ostatua” izan da.

Eskura zuen guztia egiten zuen Kubara zihozan edozein euskaldun agurtzeko, aireportura edo hoteletara joateraino. “Euskaldunen bat bertan egon eta jakinaren gainean ez egoteak mintzen zuen”, dio Arrastoa. Felixen eskuzabaltasunaren adibide gisa, bere etxeko atek denentzat beti zabalik izan zituela azpimarratzen du. Eta mahaia, berak antolatu eta prestatutako otorduak lagun artean partekatze baliatzen zuela. “Hemengo jaiak hara lekuz aldatzen zituen”, nabarmentzen du Arrastoa. San Tomas, Donostia, Aberri edota San Fermin Egunak antolatzen zituen Kuban. Halako ospakizunen atarian, “15 bat egun urduri pasatzen zituen elikagaiak lortzeko”. Ospakizunok ondo ateratzen zirela ikusteak, “jendea gustura ikusten zuenean sentitzen zen zorientzua”.

## Beti laguntzeko prest

Nahiz eta hemengo ohiturak hara eramanez, hango gizarte eta bizimoduan ezin egokiago barneratu zen “Felito”.

Bere eskuzabaltasunaren ikur, bertako zenbat jende lagundu zuen, esaterako tramiteekin. Bere heriotzak gogor kolpatu ditu Kubako lagunak. “Oraindik hil dela sinistu ezinik daude”, dio Arrastoa.

Bistan denez, “jende klase guztiarekin ondo eramatea



Felixen heriotzak hutsune handia utzi du, bereziki Kuban. “Oraindik hil dela sinestu ezinik daude”, adierazi digu bere lagun Jose Luis Arrastoa.

## FELIX SARASOLA

**“Euskaldunen bat Kuban egon eta bera jakinaren gainean ez egoteak mintzen zuen”**

gustuko zuen”.

Igandeko omenaldian Kubako ordezkariarik ere ez da faltako. “Egun berezia izango da, jende asko baikara Felixi batzen gaituena. Bertaratuko direnak Felixi esker ezagutu dira”, adierazi digu Arrastoa.

## Felixekin bat datorren agurra

Usurbilgo omenaldian bai, baina aurretik ere etxean senideek nabaritu dute Felix zenbat maite zuen jendeak. “Gu odoleko familia gara, baina beste familia handi bat ere badu”. Eta une zailetan alboan izan dituzte. “Felix nola zegoen jakin zutenean, gure etxera etorri da jendea. 8-10 lagun noiznahi, berarekin egoteko”, anaia Joxe Ramonek oroitzen duenez.

Igandeko omenaldia ere horren guztiaren ispilu izango da. “Berarekin bat datorren” ekitaldia ospatuko da frontoian, etxeko esanetan. “Hiltzen zenean trikitixa jartzeko esaten zuen”, oroitu digu Joxe Ramonek.

Hortik, igandeko ekitaldi hunkigarriari eman nahi zaion lagun arte giroko festa giro ukitua. “Alaia baitzen, askea, jende tartean ibiltzea gustuko zuena, oso soziala”, Arantxa Sarasolaren esanetan.

## Iraultzaile sanoa

Eta hala oroitu behar dugu igandean. “Gustura ez, bera falta da eta. Baina ekitaldia ikusi eta sentituko dugu”, adierazi digu Felixen anaiak.

Nola oroitu behar dugun galdetu diegu. “Modu sanoan, iraultzailea izan da, nahi duena egin du”, azpimarratu du bere anai Joxe Ramonek.

Felixen sendiak esker oneko hitzak baino ez ditu, martxoaren 31ko omenaldia antolatzen, prestatzen eta gauzatzen aritu diren guztientzat.

## Lagun arteko agurra igandean

■ Eguna: martxoak 31, igandea.

■ Ordua: 12:00.

■ Tokia: Usurbilgo frontoia.

■ Ekitaldiaren zehaztasunak: Felix Sarasolaren lagunak prestatu duten emanaldi hunkigarria frontoian. Amaieran haiaiketako.

■ Antolatzailea: Felix Sarasolaren lagun eta senide taldea.

## Kubako omenaldiaren eta Sarriren inguruko proiektzioa

Felix Sarasola omentzeko bi hitzordu izango ditugu igandean (martxoak 31). Lehenengo eguerdian frontoian, bigarrena 18:30etan hasita Sutegiko auditorioan. Batek, abenduan zendu berritan, Kubako lagunek aipatu irlan bertan egin zioten omenaldiko irudiak proiektatuko dituzte kultur etxean. Eta horrekin batera, Felixen lagun Joseba Sarrionandia hipzide nagusi duen “Gure oroitzapenak” filma ikusteko aukera izango da. Sarrionandia iruditari agertzea du helburu, Euskal Herriko nahiz atzerriko 12 zinegileren piezek osaturiko ikus-entzunezkoak. Izan harreman pertsonala, afektuzkoa, literarioa tarteko, zinegile guztiok Sarriri lotuak daude.

## Sarasolaren omenezko proiektzioa

■ Eguna: martxoak 31, igandea.

■ Ordua: 18:30.

■ Tokia: Sutegiko auditorioa.

■ Zehaztasunak: Felix Sarasolari hil berritan Kuban egin zioten omenaldiko irudien eta Joseba Sarrionandiaren inguruko “Gure oroitzapenak” filmaren proiektzioa.

■ Sarrerak: 6 euro (aldez aurretik Txirristran, Lizardin eta NOAA! K.E.-ren egoitzan). Bazkideek 4 euro, NOAA! K.E.-ren egoitzan aldez aurretik.

■ Antolatzailea: NOAA! Kultur Elkarte.



# Lehen trikitixa eskola Eleuterio Tapiak sortu zuen, Kalezarren

**G**aur egun, musika eskola guztietan erakusten da trikitixa. 40 urte atzera bestelakoa zen egoera. Ikasleen etxeetara joan ohi ziren. Ez zen eskolarik. Harik eta Eleuterio Tapia zenak Kalezarren lokal bat egokitu zuen arte. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak asteasuar trikitilariari buruzko disko-liburua plazaratu du eta hortxe topatu dugu datua. Aitaren bidea jarraitu zuen Juanek. Gaur egun, Zumarte Musika Eskolako trikitixa irakaslea da. Aitaz eta irakaskuntzaz luze-zabal hitz egin dugu Juan Tapiarekin.

**NOAUA! Etxekoen azalpen ugari topatu ditugu Eleuterio Tapiaren inguruko liburuan.**

**Juan Tapia.** Trikitixa Elkarteak azaldu ziguten aitari buruzko liburu bat egiteko asmoa zutela. Joxean Agirre idazlea gurekin harremanetan jarriko zela, etxekoen iritzia ere jaso nahi zuelako. Amak eta anai-arrebok asko eskertu genuen hori.

**Liburuan aipatzen denez, etxetz ibili zen trikitixa eskolak ematen.**

Lehen etxetz etxe ibiltzen ziren trikitixa erakusten. *Elgeta* bera ere, hala ibili zen. Maisu handienetakoa izan zen.

**Eleuteriok berak Elgetarekin ikasi zuen jotzen, ezta?**

Hala da. Orduan ohitura zen ikasleen etxeetara joatea. Txapelketak ugaltzen hasi zirenean, jende gehiago hasi zen apuntatzen. Denen etxeetara joaten hasi beharrean, eskola moduko batean pentsatzen hasi zen aita.

**Usurbilen antolatu zuen lehen eskola. Kalezarren, ezta? Nekane Sarasua eta Napo Lertzundiren etxeetara etortzen zen bai-**



Eleuterio Tapia (1926-1988) Usurbilen aritu zen eskolak ematen. "Aita hil zenean, Kalezarren zuen eskolan jarraitu nuen klaseak ematen", Juan Tapiak adierazi digunez.

## JUAN TAPIA, ZUMARTEN IRAKASLE

**"Usurbilen etxean bezala sentitu izan naiz beti.**

**Ikasleekin, gurasoekin, Musika Eskolarekin, Udalarekin... Denekin"**

**na ikasle kopurua handitzen hasi zenean Azpietxan hasi zen klaseak ematen.**

Kalezarren zituen bi ikasleren gurasoekin hitz egin zuen eta

haien etxe azpiko lokalean hasi zen klaseak ematen. Etxebizitza moduko bat zen, eta hantxe abiatu zuen lehen eskola. Usurbilen oso maitatua izan da nire aita.

**Zure aita aitzindaria izan zela esan daiteke, ezta?**

Nik dakidala, hura izan zen lehen trikitixa eskola. Lehena izan ez bazen, lehenetarikoa.

**Gaur egun musika eskola denean ematen da trikitixa. Baina 70eko hamarkada amaieran ez zen horrela izango.**

Ordura arte ez zen trikitixa eskoletan erakusten. Aita hil zenean, Kalezarren zuen eskolan jarraitu nuen klaseak ematen. Urtebete egin nuen horrela. Baina handik atera behar nuela konturatu nintzen, gero eta ikasle gehiago apuntatzen zirelako. Usurbilgo Udalarengana jo nuen, ea lokalen bat uzteko moduan ote zegoen. Kalezarrenko eskola eskaini zidaten eta orduan egin nuen aldaketa. Esan behar dut Usurbilgo Udala zoragarri portatu zela nirekin.

**Aitaren lekukoa hartu zenuen, nolabait esatearren.**

15 urterekin hasi nintzen ikasten eta 17-18 urterekin erromerietan jotzen nentzen. Aita hil zen arte jarraitu nuen kalean jotzen. Aita hil zenean zaila egiten zitzaidan irakaskuntza eta erromeria bateratzea. Urte pare bat ibili nintzen horrela eta gero plazak utzi eta irakaskuntzan zentratu nintzen.

**Lehen ikasle haien seme-alabak etorriko zaizkizu orain.**

Hala da. Eta halakoetan konturatzen naiz zenbat zahartu naizen! Aldi berean, sekulako ilusioa egiten dit. Usurbilen etxean bezala sentitu izan naiz beti. Ikasleekin, gurasoekin, Musika Eskolarekin, Udalarekin... Denekin.

## "Garai bateko ikasleak berriro elkartzea gauza ederra da"

**NOAUA! Duela lau urtetik hona, Zumarteko ikasle ohiak kalejiran ibiltzen dira Santixabel egunez. Pozgarria izango da zuretzat, ezta?**

**Juan Tapia.** Horri lotuta badut oroitzen bat sekula ahaztuko ez dudana. Duela hiruzpalau urte txapel bat oparitu zidaten, omenaldi gisa edo. Santixabel egunez izan zen. Kalejira horretan Triku taldea

dago tartean eta kide ia denak nire ikasleak izan dira. Garai bateko ikasleak berriro elkartzea gauza polita da. Neroni ere harro sentitzen naiz. Jarraipen bat izan du gainera eta hori ederra da. Kontua da Santixabel jaiek nire herriko San Pedro jaiekin bat egiten dutela eta urte batean kale egin nuen, baina libre egonez gero urtero etortzen naiz. Ikusgarria da.



Ikasle ohiak Santixabel egunez batzen dira.

# Juan Tapia: “Aitak oso garbi zuen solfeoa ikastea ere inportantea zela”

**NOAUA! Hasi zinenetik hona, trikitixa erakusteko modua asko aldatu al da?**

**Juan Tapia.** Askok. Aitak belarriaz jotzen zuen. Ez zekien partitura bat irakurtzen eta pena hori zuen.

**Garaiak eta metodologiak aldatu egin dira, ezta?**

Garai batean ez ziren 7 edo 8 urteko umeak etortzen. Beranduago hasten ziren. Eta garai batean etxeetara etortzen ziren, gurasoak propio ekarrita. Beste era batera hartzen ziren gauzak. Gurasoek ardura handiagoa hartzen zuten eta jarrera estuagoa izaten zen. Baina ordurako konturatzen hasiak ginen gauzak aldatzeaz zeudela eta zerbait egin behar zela. Askotan etxera deitzen ziguten ikasleek, bezperan ikasitako kanta nola zen ahaztua zutelako. Eta telefonotik melodia kantatzen genien. Bitxia dirudi orain, baina halaxe izaten zen. Ez da harritzekoa. Klase bat hartu, etxera joan eta jotzen hasten zirenean komeriak. Hoska izaten genituen: “nola zen ikasitako azken kanta?”. Hutsune hori zegoen.

**Zuk solfeoa menderatzen zenuenez, partiturak idazten hasi zinen.**

Ez zen erraza izan. Ez zen partiturarik beste inon. Garbi esango dizut: aita trikitixa klaseak ematen hasi zen bezala,



Aitaren bidea jarraitu du Juanek. Trikitixa du afizio eta ofizio.

## JUAN TAPIA

**“Ikasleekin ikasten dut asko. Ikasle bakoitza mundu bat da eta haien gustuetara egokitu behar duzu”**

ni bakarrik hasi nintzen solfeoarekin irakasten. Ez zegoen trikitixarako partitura bat bera ere idatzirik.

**Zu zeu hasi zinen trikitixa doinuak partituran idazten.**

Irakasteko materiala behar zen. Eta kurtso bakoitzeko materiala egin arte, aurrez aurre erakusten nuen. Eta horrek ere badu bere garrantzia. Belarria asko lantzen da, memoria ere izugarri. Bere alde onak ditu. Baina partiturak edukitzea ere inportantea da. Etxera joan eta melodia ahaztu baduzu, hortxe duzu partituran idatzia eta aterako duzu berriro. Bi metodoak lantzea

gustatzen zait.

**Ikasle asko jada solfeoa ikasita etorriko zaizkizu, ezta?**

Bai, gaur egun ikasle gehienak oinarri batekin datoz eta horrek asko errazten ditu lanak.

**Urteotan, nolako ia izan da ikasleekin harremana?**

Ikasleekin ikasten dut asko. Ikasle bakoitza mudu bat da eta haien gustuetara egokitu behar duzu. Garai batean pasodobleak eta tangoak aipatzen zizkidaten. Orain youtuben ez dakit zer kanta jarri eta hura eskatzen didate. Egoerara moldatu beharra duzu. Dena den, gauza bat esan behar dut: 31 urte dira aita hil zela eta ni orain egiten ari naizena berak jada bazuen buruan. Oso garbi zuen solfeoa ikastea ere inportantea izango zela.

**Bazuen bisio hori.**

Hori da.



**“Eleuterio Tapia, bera zen festa” liburu**

“Eleuterio Tapiak bete-betean bizi izan zuen mendiko erromerien garaia, baina irratiak eta txapelketak etorri eta soinua txikia kultura molde modernoetan sartzen hasi zenean, egoera berrira egokitzen jakin zuen eta, ez hori bakarrik, zenbait arlotan aitzindari izaten asmatu zuen, irakaskuntzan esate baterako, bera izan baitzen Elgetaren ondokiko ikasleei erakusten hasi zena, etxean jendea hartuz lehenik eta Usurbilen lokala zabalduz ondoren.

Zertzelada jakingarri horien ginetik, bere izaera, inguruan festa jartzeko zuen dohaina eta beste hainbat ezaugarri egiten dute erakargarri, egiten dute handi Eleuterio Tapia, bere azken urteetako gertakari makurrak ahaztu gabe, In-txaurrondo kuartelean basaki torturatu baitzuten, epailearen aurrera joan eta libre gelditzeko”.

**Joxean Agirre idazlea.**

## Zumarteko lanak noiz amaituko zain

**NOAUA! Zumarte Musika Eskolako irakaslea zara gaur egun. Eraikina eraberritu bitartean, egoitza ezberdinetan sakabanduta zaudete. Nola bizi duzue trantsizio garai hau?**

**Juan Tapia.** Aurten hobeto. Ohitu

egin garelako esango nuke. Baina iaiz arraro egin zitzaidan. Gai nontzeko irakasleekin ez nuen kointziditzen. Elkarrekin egoteko aukera handirik ez nuen. Ohitzen joan gara eta gainera badakigu ez dela luzerako izan-

go. Lehen denak han biltzen ginen eta beste hartueman bat zegoen gure artean. Orain ordea, eskuko telefonoen teknologia berriekin moldatzen gara.

**Whatsapparekin dena erraza-**

**goa da.**

Bai, baina ez pentsa. Ni ez naiz oso zalea. Noizbehinka bilerak egiten ditugu eta saiatzen gara ikasleen inguruko ahalik eta informazio gehien partekatzen.

## Nekane Sarasua: “Pazientzia handia zuen”

**NOAUA! Eleuterio Tapiaren ikasle izan zinen. Noiz eta nola piztu zitzaizun trikitirako joera?**

**Nekane Sarasua.** Aitak animatu ninduen. Eleuterio bezala, aita ere Asteasukoa dut eta aitak animatu ninduen. Sekula ez nuen horretan pentsatu baina aitari esker hasi nintzen trikitixan.

**Eskola modukoa antolatu zuen Kalezarren. Bertara joaten zinen?**

Hasieran bere etxera joaten nintzen, Asteasura. 13 urte izango nituen orduan. Astean behin izaten ziren eskolak eta aitak eramaten ninduen kotxez. Gero Napo Lertxundik ere berarekin hasi behar zuela eta Usurbila etortzen hasi zen Eleuterio. Nire etxera etortzen hasi zen eta gero Saizarrera joaten zen, Naporengana.

Jende gehiago animatzen



Ezkerretik hasita, Nekane Sarasua eta Eleuterio Tapia. Orduñan, 1985ean.

### NEKANE SARASUA

**“Irakasle ona zen. Behar zen denbora hartzen zuen. Oroitzapen ona dut”**

hasi zenean, Kalezarren hasi zen eskolak ematen. Azprietxeko etxe azpian. Pikaolako barrakoietan hasi zen gero eskolak ematen.

**Irakasle ona al zen Eleuterio?**

Ona zen. Pazientzia handia zuen. Behar zen denbora hartzen zuen. Oroitzapen ona dut.

**Ordurako trikitilari eta segalari ezaguna zen. Zuek ba al zenuten bere berri?**

San Juan eskean eta Oilasko biltzaileetan bera etortzen zen

Kalezarrera. 25 bat urtez etorri zen jotzera. Orduetik ezagutzen genuen hemen.

**Plazaz plaza ere aritu al zinen berarekin?**

Ni behin bakarrik joan nintzen. Egunpasa joan ginen Orduñara jotzera. Usurbilgo festetan ere jotzen genuen baina koadrilan aritzen ginen.

**Noiz arte aritu zinen soinu txikiarekin?**

20-21 urterekin Bordatxon hasi nintzen lanean, eta orduan utzi nuen soinua. Geroztik noiz edo noiz hartu izan dut baina asmatu ez. Praktika falta.

**Azken urteotan, ikasle ohiak kalejiran ibili ohi dira Santixabel egunez. Zu ere bai?**

Mikel Alkortak esan izan dit, *hasi beharkoen ba!*. Egia esan, inbidia ematen didate.

## Napo Lertxundi: “Bazekien ikaslea motibatzen”

**NOAUA! Noiz hasi zinen Eleuterio Tapiarekin ikasten?**

**Napo Lertxundi.** 10 urterekin hasi nintzen. Niri beti etxean eman zizkidan eskolak. Bere etxera ere joaten nintzen ikastera.

**Asteasura?**

Gazte txapelketa asko izaten ziren orduan eta halakoetan astebete egiten nuen bere etxean, ikasten. Goizean jaiki, gosalduta eta soinua jo. Bazkalostean, Javier eta Juan bere semeekin berlarretara eta gero berriz etxera itzuli eta soinua jo.

**Harreman estua zenuten, beraz.** Eleuterio atxilotuta eraman zutenean, ni gau hartan bere etxean nengoen lotan.

**Atxiloketa eta gero aldartea aldatu egin zitzaizola esaten da liburuan. Gutxira gaixotu eta hil egin zela.**



Bera zen festa Eleuterio Tapiari buruzko liburua abenduan aurkeztu zuten Asteasun. “Ander Arantzazistroki han zen, Santi Azurmendi, Alex Apaolaza... Usurbildar batzuk batu ginen han”. Argazkia orduko da. Egilea: Aiurri.

### NAPO LERTXUNDI

**“Gazte txapelketa asko izaten ziren orduan eta halakoetan astebete egiten nuen bere etxean, ikasten”**

Ez zen segituan gaixotu, bi urtera edo izan zen. Baina horrek

markatuta utzi zuen. Eta nabaritu zen. Gero gaitza hortik etorri ote zen, auskalo. Lagundu ez zion lagunduko, noski.

**Nolako irakaslea zen?**

Gizonak pazientzia handia zuen, eta beti umore onez zegoen. Txapelketetan urduri izaten ginen, kikilduta. Baina

berak bazekien ikaslea motibatzen. Positiboan zen %100ean eta hori zainetatik sartzen zitzaizun.

**Azken urteotan berriro ikusi zaitugu trikitia jotzen. Santixabeletan, hain zuzen.**

Hala da. Azken hiru urteotan atera naiz ikasle ohiekin eta oso gustura aritzen gara. Giroa oso polita izaten da. Garai batean soinua jotzen ibili ginenak batzen gara, Juan Tapiarekin batera.

**Abenduaren 1ean Asteasun aurkeztu zuten Eleuterio Tapiari buruzko liburua. Orduan ere kalejiran ibili zineten.**

Asteasun izan zen aurkezpena. Kalejiran joan ginen udalaxeraino. Bertan egin zen aurkezpen ekitaldia. Jende pilo bat batu zen. Oso egun polita izan zen.



# Apirilaren 1etik 7ra, musikaz blai 15. Soinurbilekin

**M**usikaz blai datorkigu apirila hasiera Zumartekoen 15. Soinurbil ekimenarekin.

Egitarau oparoa josi dute aurtengoan ere. Zumartekoak beste musika eskolekin batera zenbait emanaldi eskainiko dituzte. Batetik, urtero egiten duten trukaketa ekimenaren baitan, Getariako J.S. Elkano eskolakoak etorriko dira Usurbila lehenbizi eta astebete beranduago Zumartekoak joango dira kosta parteko herrira.

Getaria ondotik, Zarautzeko Imanol Urbieta musika eskolatik ere bisitari talde bat izango dugu Soinurbilen baitan. 2013an sortu zuten, 450 ikasle eta 16 irakasle ditu. Biolineko eta perkusioko ikasle talde bat etorriko da, haien lanketa plazaratzera. Zumartekoak izango dituzte bidelagun.

## Zarauzko Musika Banda

Herri ezberdinetako musika bandaren bat ere gonbidatu ohi du Zumartek Soinurbil ekimenera. Aurtengoan hain zuzen, Zarauzkoa izango dugu kalejiran lehenbizi eta frontoian kontzertua eskaintzen gero, apirilaren 7an.

Musika Astearen abiapuntu izango den hitzordu klasiko bat; Salvatore Elizan dagoen ehun urtetik gorako organoa ezagutzeko bi bisita gidatu izango ditugu, Joan Luis Atxegaren eskutik.

Emanaldirik ere izango da haurrentzat; "Txomin & Txistuman, Deskontzertuan" izenekoa hilaren 2an Sutegin. "Euskal Herriko eta munduko instrumentu tradizionalen kontzertu xelebrea umeentzat. Txomin txistu hitzun bat da, eta banda bateko zuzendaria ere bada: munduko instrumentu musikal tradizionalen



Txamukos Mariatxiak izango ditugu, 15. Soinurbil Musika Asteako gonbidatuen artean. Lesakako talde honek Usurbilgo kide bat du.

## 15. SOINURBIL

***"Konpondu berri duten Artzabalgo plazara ere hedatuko da aurten, ate joka dugun musika astea"***

buruzko kontzertu didaktikoak ematen dituen musikari banda bat zuzentzen du".

## Usurbilgo mariatxia

Zumartek Kale Nagusiko erakina handitu eta berritu artean behin behineko bulegoaren kokagunera, konponketa lanak amaitu berri dituzten Artzabalgo plazara ere hedatuko da aurten, ate joka dugun musika astea. Txamukos Mariatxiak gonbidatu dituzte apirilaren 5ean. 2014an sortutako Lesakako taldeak "bertako 4 musikari daude eta Arantzako, Usurbilgo eta Villabonako bat. Gitarra, baxua, soinua, bi tronpeta eta abeslari batek osatzen dute mexikar talde hau. Korridoak, baltsak, boleroak... eta era askotako doinuak mexikar erara interpretatzen dituzte, horietako batzuk euskaraz".

## Txistularien topaketa

Eskualde mailako txistularien

topaketa ere antolatu du Zumartek musika asterako. Usurbilgo eta eskualdeko 25 txistulari elkartuko ditu apirilaren 6an. Egunean zehar bi kalejirekin herria girotuko digute. Eta azken kalejiraren ostean, frontoian Lauhaizeta Akordeoi Orkestraren emanaldia, 13-23 urte arteko Klake taldearekin. "Gaztetxoak izan arren, errepertorio desberdinak lantzen dituzte: swing musika, folka... Erreterria Musikaleko Jazz konboarekin elkarlanak egin izan dituzte. Oraingoan, akordeoi taldearekin folk doinuekin batera emanaldia eskainiko dizuegu", aurreratu dute Zumartetik.

## Entseguak

Adi, Zumarte abesbatzak ere parte hartuko duen kontzertura kantu zaletuak ere animatu nahi ditu Zumartek. Emanaldira batu nahi duzuenontzat entsegu saiook deitu ditu Zumartek:

■ Apirilak 3 (asteazkena), 19:15-20:15 artean Udarregi ikastolako DBH-ko Musika gelan.

■ Apirilak 5 (ostirala), 19:30-20:30 artean, akordeoi orkestarekin (lekua zehazteke).

## 15. Soinurbil

### Musika Astea

#### Apirilak 1, astelehena

■ 18:00 / 19:00 Joan Luis Atxega herritarraren eskutik, Usurbilgo organoa gertutik ezagutzeko aukera paregabea Salvatore Elizan.

#### Apirilak 2, asteartea

■ 18:00 Txomin & Txistuman, Deskontzertuan haurrentzat, Sutegiko auditorioan.

#### Apirilak 3, asteazkena

■ 18:30 Getariako J.S. Elkano musika eskolarekin trukaketa Sutegiko auditorioan.

#### Apirilak 4, osteguna

■ 18:30 Zarauzko eta Zumarteko biolin jotzaileen emanaldia Sutegiko auditorioan.

#### Apirilak 5, ostirala

■ 19:30 Txamukos Mariatxiak Artzabalgo plazan.

#### Apirilak 6, larunbata

■ 12:30 / 18:30 Usurbil eta eskualdeko 25 txistularirekin kalejirak.

■ 19:30 Lauhaizeta akordeoi orkestra, abesbatza eta klake taldea frontoian.

#### Apirilak 7, igandea

■ 12:30 Zarauzko musika bandaren kalejira.

■ 13:00 Aipatu musika bandaren emanaldia frontoian.

#### Apirilak 10, asteazkena

■ 18:30 Zumarteko ikasleen kontzertua Getariako Iturzaeta Herri Eskolan, bertako J.S. Elkano musika eskolarekin egiten ari diren trukaketaren baitan.

■ Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.

■ Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxabank.

# Oporretan kirolarekin jolastuz gozatzeko, Usurbil F.T.-ren txokoak

**G**aztetxoek ate joka dituzten udaberriko oporrak lagun artean eta jolasen bidez kirolaz gozatzeko aukera ederra izango dute, Usurbil Futbol Taldearen eskutik. Kirola egiteko ohitura osasuntsuak oporretan eten beharrik ez daudelako, "Kirola eginez" ekimena antolatu du aipatu kirol klubak, apirilaren 23tik 27ra. "Kirola aitzakia hartuta, herriko haurren heziketan partaide aktibo izatea gure helburuetako bat delako. Bide batez, herritarrei zerbitzu berri bat eskaini nahi diegu".

Futbol taldeen bilgunea izanik, egun horietan eskainiko dituzten jardueren artean futbola izango da noski, baina "Usurbil Futbol Taldeak, futbola ardatz badu ere, kirolaren onurak go-raipatzen ditugu orokorrean. Horregatik, ekintza honetako eskaintza anitza eta zabala izango da". Besteak beste, eskubaloia, jolas tradizionalak, futbola, eskupilota, herri kirolak, saskibaloia... ekintza hauetan jolasteko aukera izango dute gaztetxoek. Jolasteko aukera, ez lehiatzekoa. "Adin hauetan, kirol eta jolas ezberdinak egitea aberasgarria da eta



**Usurbil F.T.-k apirilaren 23tik 27ra antolatu dituen kirol txokoetarako izen ematea egunotan bideratu beharko da.**

lehiaketak alde batera utzita, haurrek jolasean gustura pasatzen dezaten nahi dugu".

## Kirol txokoak

■ Epea: apirilaren 23tik 27ra, asteartetik larunbatera.

■ Orduetgia: 9:30-13:00.

■ Tokia: gune nagusia Harane futbol zelaia izango da. Baina hainbat tokitan ibiliko dira: Oiarde Kiroldegian, frontoian, herrian zehar...

■ Nori zuzendua: LH 1-6 maila arteko ikasleei, 6-12 urte artekoiei.

■ Izena emateko:

-Izen emate orria bete.

-50 euroko ordainketa egin on-

doko kontu zenbakian, haurren izen-abizenak eta kontzeptuan "Aste Santua" adieraziz: 2095 5069 06 1071029051 (Kutxa).

-Izen emate orria eta ordainagiria, apirilaren 2an aurkeztu, 16:30-17:00 artean Oiarde Kiroldegiko sarreran Zirimarako hezitzaileari edo apirilaren 4an, 17:30-19:00 artean Usurbil Futbol Taldeak Harane futbol zelaian duen bulegoan utzi.

■ Informazio gehiago: Usurbil F.T.-ren Haraneko bulegoan, futusurbil@yahoo.es helbidean.

■ Antolatzailea: Usurbil F.T.

■ Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Udarregi Ikastola.

## Pagazperen errifa zozketa

Usurbilgo pilota elkarteok egindako errifa zozketako zerbaki saritua, 2.617 izan da.

## Usurbil K.E.-ren errifa zozketak

Malen Arregi izan da, Usurbil K.E.-k eginiko azken errifa zozketako saritua. Bi lagunentzako otordua egokitu zaio Aginaga sagardotegian.

## Zozketa gehiago

Opari gehiago ere zozketatu ditu Usurbil K.E.-k: urdaiazpikoa (5.280 izan zen zerbaki saritua, beheko argazkian saritua) eta mariskada (zerbaki saritua 7.793).



# Elkartasun azokaz azoka, Udarregi Ikastola

**O**ndoko irudian, minbia duten haurren guraso elkarte Aspanogi laguntzeko, Udarregi Ikastolako LH 2-ko ikasleek martxoaren 22an Agerialdeko patioan antolatu zuten azoka solidarioa. Eskuz sortutako lanen truke jasotako dirua aipatu elkarteari helaraziko diote.

## Eskertza

Elkartasun ekimen ugari antolatzen ari da azken aldian Udarregi Ikastola. Martxoaren 15ean, LH6ko ikasleek fron-

toian antolatu zuten halako hitzordu solidarioa, Greziako errefuxiatuak laguntzeko. "LH6ko eta Udarregi ikastolaren partez eskerrak eman nahi dizkizuegu gure Azoka Solidarioan agertutako eskuzabaltasunagatik, bai herriko saltokiei baita bertaratu eta erosketak egin zenituztenei ere. Gure ikasleek guztira 1.113 euro lortu dituzte. Diru hori Zapareak (GKE) elkartera bideratuko da. Eskerrik asko guztioi eta bereziki LH 6ko ikasleei beraien lanagatik!".



**Martxoaren 22an Agerialden antolatu zuten azoka solidarioa ireki orduko, LH2ko ikasleek ziztu bizian saldu zituzten eskulanak.**

# Euskadiko txapelkunak, apirileko Espainiako sektorera begira

Usurbil K.E.-ko jubenil mutilak asteburuan Kiroldegan jokatu den Euskadiko txapelketako garai-leak ditugu! Zorionak! Apirilaren 12ko asteburuko Espainiako sektorera begira da jada taldea.

Asteburuan bizitakoaz honako kronika helarazi digute Jon Aizpuruak eta Xabat Belokik, taldeko entrenatzaileek. Usurbil K.E.-ren zuzendaritzak asteburuan antolaketan eta tabernan lanean jardun duten gurasoak eskertu nahi dituzte:

“Ez zen erraza izan baina lortu dugu. Asteburu honetan bizitakoa ez zaigu berehalakoan ahaztuko, zahar, gazte eta helduen bilgune bilakatu zen Oiardo Kiroldegia.

Ostiralean hasi zen lauko finala, guk bagenekin gure jokoa eginda, partiduan erraztasun haundiagoak izango genituela. Horrela izan zen, ostiralean Zarautzi irabazi eta larunbatean Pulpori.

Larunbatean, aurreko partidako emaitza dela eta, gure esku geratu zen txapelketan lehen postua lortzea. Urduritasuna nabaria zen jokalariei eta entrenatzaileen artean, gazteek ilusioz eta gogoz aurre egin zien partidari eta bai, irabazi eta txapelkun gara!

Igandean, Tolosarentzat irabazi beharreko partidua zen eta guretzat, taldeko giro onarekin jarraitzea zen asmoa, jokalariei guztiei minutuak emanaz. Azkenean, batengatik gal-



Usurbil K.E.-ko jokalariek Euskadiko Txapelketa irabazi berritan.



Usurbil K.E.-ko taldea, lagun, senide eta elkarteko kideez inguratuak.

du genuen, baina gustora joan ginen sagardotegira, Euskadiko txapelkun ginela ospatzera.

Izugarria herriarengatik jasotako babesa. Esker berezia gurasoei, batez ere Marikarmeni bere animoengatik, beraiek gabe lortutakoak ez baitzuen zapora bera izango, mila esker bihotzez!

Azkenik, eskertu, klubak hartutako lana asteburu hau biribila izan zedin”.

## Emaitzak

■ Martxoak 22, ostirala Pulpo (Zumaia) 20-20 Tolosa Zarautz 18-20 Usurbil

■ Martxoak 23, larunbata Zarautz 22-21 Tolosa Usurbil 24-19 Pulpo

■ Martxoak 24, igandea Pulpo 25-21 Zarautz Tolosa 19-18 Usurbil

**Sailkapena:** 1-Usurbil 4/2-Tolosa 3/3-Pulpo 3 /4-Zarautz 2

## Senior nesken futbol

### taldea

2019-20 denboraldira begirako prestaketa lanak abiatu ditu herriko futbolarien bilguneak. Iraganeko postazun ugari eta klubaren ikur bilakatu zen senior nesken taldea berreskuratu nahi du Usurbil F.T.-k. Futboleko jokatu nahi duzuen neskek adi beraz. Xehetasun gehiago, aurrerago eskainiko ditu futbol klubak.

## Futbola Haranen

### Martxoak 30, larunbata

■ 09:00 Infantil mutilak A: Udarregi Usurbil F.T.-Ilintxa SD

■ 10:45 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Zarautz KE B

■ 12:30 Alebin neskek (eskolalarra):

Udarregi 6A-Udarregi 6B

## Eskubaloia Oiardon

### Martxoak 30, larunbata

#### Eskola Kirola

■ 09:15 Alebin mutilak:

Udarregi 5D - Urnieta 5B

Udarregi 5A - Udarregi 5B

■ 10:15 Alebin mutilak:

Udarregi 6A - Udarregi 6B

■ 13:00 Infantil mutilak (amaiera fasea B-G2): Udarregi A - Pulpo EK

#### Usurbil K.E.

■ 11:30 Kadete mutilak (Euskadiko Txapelketa, 2. fasea): Usurbil K.E.-Egibide-Gure Auzune

■ 16:00 Kadete mutilak, Territorial mailako taldea (Udaberriko Txapelketa): Usurbil K.E.-Ereintza Todo Terreno

■ 17:30 Jubenil neskek (Federazioko Trofeo): Usurbil K.E.-Aiala ZKE.

■ 19:00 Senior neskek: Ur-bil-Usurbil K.E.-Egia Kopidin.

■ 19:00 Senior neskek: Ur-bil-Usurbil K.E.-Egia Kopidin.

## Martxoak 31, igandea

#### Eskola Kirola

■ 11:30 Infantil neskek (amaiera fasea-G1): Udarregi A - Orioko A ZKE

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
**693 059 392**  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**Josue Igeltseritza**  
**606 37 21 05**  
Atallu pol.28 USURBIL

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
urdaintzi@euskalnet.net  
IT-ak egiten dira  
**649 43 54 75**  
**943 36 72 64**  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komunak, kalezak. Igozailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komunak. Bakoia trastelekuak. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m<sup>2</sup> eta garajeak 22m<sup>2</sup>. 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>-terraza, 8 m<sup>2</sup> trasteleku eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60.

## Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabe. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-lokal bat alokatzen da. Kafetegia edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila

nabil. Presa dauka. 699 680 265.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzen. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekabizki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabizki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administratibari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interes-atua bazaudete, deitu 943 361 114 telefono zenbakira, edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza

enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiaren informazioa. Tel. 699 760 873

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorria, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentzietan pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala



## Zorionak Ariana eta Irene!

Martxoaren 27an, 12 urte eta apirilaren 3an 9 urte egingo dituzuelako!!! Zorionak bioi printzesitakkkkk!!!

## Heriotzak

## Manuel Zumeta Arruti

90 urterekin hil zen martxoaren 24ean Usurbilen.



lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Ur-tarrietatik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketari. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuaren (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziarekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Ge-

riatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziarekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun he-

rritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsaldetan umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

#### BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonés arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

4 gurgildun karro elektrikoak salgai. Scooter markakoa. Egokia elbarrituentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoak salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdut duzu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefono-nora. Iزارo

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gattetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularak emateko jende bila gabilza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! Telefono zenbakia: 943 36 12 16

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 28** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 29** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 30** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 31** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 01** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 02** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 03** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Martxoak 28 - Apirilak 07

**Osteguna 04** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 05** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 06** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 07** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda martxo

## 29 ostirala

- **Ikastaroak: desfibriladoreen erabilera.** 16:30etan Zubietan, 19:00etan Sutegin.
- **Presoen aldeko elkarretaratzea eta afaria.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Euskal presoen sortze lanen erakusketa Sutegin.** Martxoak 28-31.

## 30 larunbata

- **Kantu Taldearen 10. urtemuga festa.** Ha- maiketakoa, kantu-jira eta bazkaria.
- **Bulkada Eguna.** 9:00 Intxortara irteera. 19:00 Gazte Topagunearen aurkezpena.
- **Solasaldia: "Presoak eta sorkuntza".** 19:00etan Sutegin.

## 31 igandea

- **Ordu aldaketa.** Goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira.
- **Felix Sarasolari herri omenaldia.** 12:00etan Usurbilgo frontoian.
- **"Gure oroitzenak" film proiektzioa.** 18:30etan Sutegin.

## Harkaitz Cano, apirilaren 3ko 13. Irakurketa Topaketan

Irakurzaletuen bilguneak hitzordu berria finkatu du hurrengo asterako. Apirilaren 3an 19:00etan hasita, 13. Euskarazko Irakurketa Topaketa ospatuko da Sutegi udal liburutegian. Oraingoan, Harkaitz Cano idazlea gonbidatu dute hitzordura. Bere eleberrri "Fakirren ahotsa" aztertuko dute, Pako Aristik gidatuko duen solasaldian. Lagun giro eder honetan parte hartzera animatzen dute antolatzaileek.

Canok iaz Susa argitaletxearekin plazaraturikoa, "borroka armatua, klandestinitatea, erbeste paristarra...", mundua iraultzen saiatu zen belaunaldi baten erretratua da lau hamarkada-



Harkaitz Canoren "Fakirren ahotsa" eleberrria aztertuko da apirilaren 3ko topaketan.

tan luzatzen den nobela hau". Imanol Larzabal kantariak inspiraturiko eleberrria dugu honako hau. Protagonistaren izenari Imanol da kantariaren omenez, abizena aldatu eta Lurgain jarri dio.

## Gazteen batukada ikastaroa

Gaztelekuak batukada ikastaroa antolatuko du larunbaterako (martxoak 30), 17:00-19:00 artean Potxoenean. DBH1-ekoei zuzenduriko saiorako izena aurrez eman beharko da Gaztelekuan bertan edo 943 371 050 telefono zenbakira deituta. Ate joka ditugun udaberriko oporretarako hainbat ekintza antolatzen ari da Gaztelekua. Xehetasun gehiago laster.

## Pentsiodunen elkarretaratzea

Bizi eta pentsio duinak aldarrikatzeko hileroko azken ostegunetako elkarretaratzea deitu dute Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate jubilatuek martxoaren 28rako 19:00etan Mikel Laboa plazan. Bertaratzeko gonbita luzatzen diete bai pentsiodunei, baita belaunaldi guztietako herritarrei ere.

## Datozenak

### Korrika girotzeko Musikala

Gerturatsen doa, badator 21. Korrika! Apirilaren 12an 14:24 aldera Aginagatik sartu eta 15:40 pasatxoan Zubietatik Lasartera, ordubeteko tarte horretan gure artetik igaroko den euskararen aldeko lasterketa girotzeko lehen hitzordua apirilaren 7rako iragarri du ekimenok bideratzen ari den Korrika Batzordeak. Arratsaldeko 19:00etan hasita frontoian, Usurbilgo artisten taldearen eskutik, aurreko 20 Korriken erreposoa egingo da. Denetarik formatuen bidez, erreposo artistikoa. Aurreko 20 Korrikako abestien "azterketa".

### 7. Dantza Eguna, apirilaren 13an

Orbeldi Dantza Taldeak prest du jada dantza zaletuen egunerako egitaraua. Apirilaren 13an ospatuko dugu Usurbilgo 7. Dantza Eguna. Goizean 4. Dantza Taldeen topaketarekin eta 1. Dantzari Txikien Topaketarekin. Bi ekitaldiotan kalejira eta emanaldi bana ospatuko dituzte. Eta gauean, Orbeldi azken hilabeteotan ontzen aritu den "TIPI Tapa Pub" herri ikuskizuna. Eta erromeria giroa Larrian Gozorekin. Xehetasun gehiago, hurrengo astekarian.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ZENDOIA**  
**ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

#ElkarrekinBurujabe

2019ko Udal Hauteskundeetarako

# hautagaitzaren aurkezpen ekitaldia

apirilak 5 19:00 frontoian

**ehbildu**  
Usurbil



## Pelix Sarasolaren omenez

### GURE OROITZAPENAK FILMA

Martxoak 31, igandea  
SUTEGI AUDITORIOAN  
18:30

Sarrerak: aurrez salgai 6 eurotan  
NOAUA! Kultur Elkartearen, Txirristran eta Lizardin.  
Bazkideek 4 eurotan NOAUA!n bertan.

**noaUA**



# OSASUN GIDA 2019



**Irati Ibargoien**  
FISIOTERAPIA - OSASUNA

ZERBITZU BERRIA

### PSIKOLOGIA

- Terapia indibidualak
- Mindfulness

### PILATES TERAPEUTIKOA

- Indibiduala
- Taldetakoa

### BESTE TERAPIA MOTAK

- Presoterapia



943 53 92 66 Puntapax 6B, behea ezk. USURBIL

### FISIOTERAPIA

- Amatasun prestakuntza
  - Zoru Pelbikoko tratamenduak
- Lesioak: traumatologikoak, posturalak, kirolekoak, ATM disfuntzioak, zoru pelbikoa...

### Teknikak:

- Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
- Fisioterapia eta osteopatia Funtzionala
- Puntzio lehorra
- FIM ( fibrolisis instrumental miofascial)

ZERBITZU BERRIA



**USURBIL**  
OPTIKA

Bigarren lente parea doan:  
lente progresiboetan,  
irakurtzeko lenteetan  
eta ikus-urruneko lenteetan

2 lente parea doan

**2x1**

PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



**Iturralde botika**

Tomas Iturralde botika  
33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatiakoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO  
RPS: 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



**Lizarralde**  
ORTOPEDIA

### ✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

- ✓ Produktu ortopedikoen  
**alokairu zerbitzua**  
(oheak, aulkiak, garabiak...)
- ✓ Arreta pertsonal eta  
**espezializatua**

✚ Teknikari ortopeda kontsulta

👤 Aholkularitza

📦 Produktu gama zabala

Kazkazuri 1 boxua, Oiarzun - 943 543 585 / 688 678 583  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)

**Kima**  
MASAJE LEKUA

•Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa  
biomekaniko eta osteopatikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

**Öinutsik**

podologia zentroa

etorri zaitez zure oinen eta posturaren  
azterketa bat egitera!

zuzenki zure  
oinetatik

943 11 09 54 zubiaurenea 2